

Ez gara gauza izan

Euskaldunon Egunkaria, 1996-12-29: 3.

Lorpen tentagarria zirudien, bada. Lehen aldiz jarri ginen alderdiek, bakarka eta Legebiltzarra mailan, batetik, herri iritziaren gehiengoa multzoka buru-bihotzez bestetik, eta Gabonak gure alde ditugula, euskal presoan hurbiltzearen alde bateratuak. Ez ados legea bortxatzeko, baizik eta legea, behingoz!, ahulen, senideen, alde dagoela erakutsiaz. Espainiako aginteraren izpiritua bera ere, bestetik, Haurtxoaren alde zegoen, teknikoki behintzat, lege ofizial hau kristaua baita; eskarmentua badugu bestelakoa, eta gogorra, baina desioz, eta beharraren poderio estuaz, itxaropena dugu gorde hazitarako, eta hala, fede apur bat estuasunetarako osatua daukagunok ari ginen, bada, txingarrautsak puskatzen, jende lauarenargalak behartzen. Ez genuen beste mundukorik eskatzen, jende lauaren hitzari hitz lauz erantzungo ote zien itxaropenean baizik. Baina alderdi gehienak arrastoaren alde batetik jartzea lortu genuela uste genuen puntu puntuan irten da konsigna, hitz zitala, edo hala zirudien isilunea, trumoi hotsa norbaitek sumatu, edo iruditu, zaiolako. Eta alto!, geratu da kurpil zoroa ferietan bezala: 0. Eta zero da harrez gero entzuten dena, entzuten ez dena, hau baita nagusi jendea isiltzen hasten den honetako une magikoetan.